



Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 1ekoa. Horren bidez, erakunde honek bukatutzat jo du bere jarduera Donostiako Aieteko jauregian eta lorategietan aurreikusitako hirigintzako esku-hartzeen gainean.

Aurrekariak

1. Donostiako auzotar talde batek Aieteko jauregian eta bere inguruan aurreikusitako hirigintzako jardunen berri eman digu. Auzotar horiek uste dute jauregian eta bere inguruan auzorako kultur etxea eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitza jartzeko udalak aurreikusi dituen proiektuak ez datozela bat Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak (HAPN) higiezin honetarako eta parke-lorategirako aurreikusi duen babes erregimenarekin.
2. Udalak talde honek aurkeztutako erreklamazioaren buruz zuen iritzia ezagutzearren, informazioa eskatu genuen Aieteko jauregirako eta inguruko lorategietarako udal plangintzan aurreikusten den babes erregimenari buruz eta horrek oraindik bidean den plan bereziarekin eta esku hartzeko aurreikusitako oinarritzko proiektuarekin duen bateragarritasunari buruz. Era berean, proiektua eta garapen plangintza izapidetzerakoan udalak egin izan zitzakeen txostenak bidaltzeko ere eskatu genuen.
3. Horri erantzunez, udalak jakinarazi zigun Aieteko Parkearen Plan Bereziak (PB) –“AY.09 Aieteko Jauregia hirigintza-jarduerarako eremua”– eta kultur etxea eta Giza Eskubideen Institutua jartzeko oinarritzko proiektuak udal plangintzan definitutako babes erregimena errespetatzen zutela. Udalaren iritziz, eraikinean egingo zen esku-hartzea positiboa zen, gune hori berriro erabiltzea baitzekarren. Nolanahi ere, adierazi dute parkean aurreikusitako esku-hartzeak –kultur etxea lurpeko eraikinean jartzekoak– iparraldera ematen duen jauregiaren atzeko aldeari bakarrik eragiten diola; udal arkitektoaren txostenak dioenez, hori “*ez da parkearen elementu bereizgarria; neurrizko interesa du eta berez ez da babesteko modukoa*”.

Aurrekari horiek ikusita, PB eta oinarritzko proiektua prestatzearen inguruko ondoko gogoeta hauek helarazi genizkion Donostiako Udalari.



Gogoetak

1. HAPNaren laugarren tituluan jasotzen diren ondarea babesteko arauak babes maila gorena –I. maila– ezartzen zuten bai Aieteko jauregiaren eraikinerako bai inguruko parke eta lorategietarako.

Horrek esan nahi zuen, batetik, jauregiaren eraikinean eta parkean oro har egiten ziren eraikuntzako edo birmoldaketako esku-hartzeek bat etorri behar zutelara HAPNaren 4.3 eta 4.5 artikuluan aurreikusitako erregimenarekin. Bestalde, onartutako plangintzak udalaz gaineko baimen erregimena jasotzen zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidezko txosten loteslearen bidez.

Udal plangintzan bertan aurreikusitako babes mailak egungo trazadura orokorra eta Aieteko parke osoaren oinarritzko antolaketa finkatzea zekarren, baita jauregiaren atzeko aldea ere. Parkean mantentze lanak gainditzen zituen edozein esku-hartze edo aldaketa egin ahal izateko, parkearen orduko egoera hartu behar zuten kontuan edo, nolana ere, haren jatorrizko itxura eta diseinua berreskuratzerantz bideratuta egon. Ez zuten inolako aukerarik ematen parkearen diseinuan edo tipologian elementu bat bera ere aldatzeko, ezta erabilera berriak sartzeko ere.

Alderantziz, PBar jasotako antolamenduak parkearen zona bat –ateko aldea– aldatzea aurreikusten zuten; horrek erabilera eta jatorrizko diseinua aldatzea zekarren, erdilurperatutako eraikina egingo baitzen komunitate ekipamendu gisa erabiltzeko.

Nolana ere, txosten teknikoetan eta bidalitako udal dokumentazioan ez zegoen behar bezala justifikatuta ondarearen babes erregimena, bereziki, iparraldeko lorategian aurreikusitako erdilurperatutako eraikinari dagokionez. Hain zuzen ere, udal arkitektoak aipatu zuten beharrezkoa zela hala egitea eta txostena egiteko eskatu zion parke eta lorategien udal zerbitzuen arloari. Erakunde honetara, ordea, ez da halako txostenik bidali.

2. Bigarren, HAPNko babes erregimenarekin bat etorritik, beharrezkoa zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren txostena Aieteko jauregian eta bertako lorategian edozein esku-hartze garatzeko.

Aieteko parkearen PBar buruzko lehen txostenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi zuen erdilurperatutako eraikinak “eraso” egiten ziola



parkearen jatorrizko diseinuari eta parkearen eta jauregiaren eraikinaren osotasuna eta benetakotasuna zaindu behar zela.

Hala ere, ondoren, Kultura Zuzendaritza Nagusiak jauregian eta lorategian garatuko zen esku-hartzearen aldeko txostena egin zuen. Baimen hau, ordea, zenbait baldintza betetzera lotuta zegoen parkearen trazadura orokorra eta lehendik zegoen oinarritzko bere topografia errespetatzeko.

Edozelan ere, azpimarratu behar dugu, Aldundiaren arabera, atzeko aldea babestu egin behar zela eta ez zela askatasunez jardun behar bertan. Hala ere, proiektatutako esku-hartzea onartu zuen eta udalak kontrolatu beharreko baldintza jakin batzuen pean jarri zuen.

3. Dena dela, bazen garrantzi bereziko beste alderdi bat ere, hainbat taldek proposatu baitzioten Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari espedientea hasteko Aieteko jauregia eta lorategiak kultur ondasun kalifikatutzat har zedin, monumentu edo monumentu multzo gisa.

Eskaera horri erantzunez, 2006ko martxoaren 27ko Ebazpenaren bidez (2006ko apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 68 zk.koa), Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak espedientea hasi zuen Donostiako Aieteko jauregia kultur ondasun kalifikatutzat hartzeko, monumentu multzoaren kategorian.

Erabaki horrek garrantzi bereziko ondorio juridiko batzuk dakartza, Kultur Ondareari buruzko Eusko Legebiltzarraren 7/1990 Legearen 22. artikuluekin bat etorritik, ondasun kalifikatueterako aurreikusitako babes erregimena behin-behinean aplikatzea eta kasuan kasuko zonei dagozkien udal lizentziak eta jada eman direnen ondorioak etetea baitakar.

Ondorioak

Ondorioz, udalari adierazi genion aurreikusitako antolamenduak eta proiektuak berariaz justifikatu behar zutela Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak biltzen zituen ondarea babesteko arauetan aurreikusitako babes erregimenarekin bat zetozela eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak egindako zehaztapenei jarraiki aldatu behar zirela. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak monumentu hori kultur ondasun



kalifikatutzat hartzeko egin zen eskaera ikusita, udalari iradoki genion esku hartzeko proiektua eten zezala, hasierako espedientea ebatzi arte, katalogatutako monumentu multzoan ondorio itzulezinak eragin zitezen saihesteko.

Iradokizun horri erantzunez, Donostiako Udalak Hirigintza zuzendariaren txostena bidali zigun eta bertan adierazi zuen, kultur ondasun kalifikatutzat hartzeko espedienteari hasiera eman ondoren, behin-behineko babes erregimen berria Eusko Jurlaritzaren ebazpenaren bidez aurreikusitakoa izango litzatekeela. Horregatik, udalak Eusko Jurlaritzako Kultura Sailari bidali zion PBaren agiria, babes erregimen berriaren inguruan informa ziezaion.

Ondoren, Eusko Jurlaritzako Kultura Sailak jakinarazi digu, urriaren 24ko 211/2006 Dekretuaren bidez (2006ko azaroaren 13ko EHAA), Aieteko jauregia kultur ondasuntzat hartzea erabaki dela, monumentu multzoaren kategorian.

Eusko Jurlaritzak Aieteko jauregia eta bertako lorategiak behin betiko kultur ondasun kalifikatutzat hartzeko eman duen erabakiak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen aurreikuspenetara jasotzen du horien babes maila eta ondasunaren mugapen berria eta babes erregimen berria ezartzen ditu dekretuaren III. eranskinean.

Erabaki hori hartzeko, Kultura Sailak, dekretuko zioen azalpenean dioen bezala, eraikinaren, lorategiaren eta inguruaren behin-behineko babes erregimenari buruz udalak berak eta biztanle talde batek egindako alegazioak kontuan izan eta aztertu ditu. Lorategiak direla eta (III. eranskineko 6. artikuluan jasotako elementua), dekretuak dio debekatuta dagoela egungo lerrokadurak edo profilak aldatzea, *“jauregi-parkearen iparraldean izan ezik, bertan daudenak ez baitatoz bat jatorrizko trazadurarekin”*. Nolanahi ere, 18. artikulua arabera, egungo trazadura alda dezaketen esku-hartzeek *“multzoaren batasuna, eremua lorategi eta gune ireki gisa, eta jauregiaren egungo pertzepzioa”* errespetatu beharko dituzte. Horretarako, eranskinaren 4. artikulua aipatzen du monumentu multzo honi aplikatu beharreko garapeneko hirigintzako plangintzak dagokion txosten loteslea eskatzen duela eta, bertan, edozein jardueraren harmonizazio maila adierazi behar dela.

Hain zuzen ere, testuinguru berri honetan aztertu behar ditu kultur administrazioak aurreikusitako jarduteko proiektuaren alderdi garrantzitsu



guztiak, baita horiek babestu beharreko elementuekiko eta beren babes mailarekiko duten errespetua ere.

Hori ikusita, gure esku-hartzea eten dugu, etorkizunean beharrezkoak izan daitezkeen jardueren kaltetan izan gabe.